

BALIOA

Ekitaldiak prestatzeko enpresa bat gara, Espainiako hainbat tokitan ekitaldi mota desberdinak prestatzen ditugu. *Udalek, elkarteek eta enpresek* kontratatzen gaituzte.

Bezeroarentzat balorea sortzen duten *elementuak lana erraztea, diseinua/marka estatusa, prezioa eta eskuragarritasuna* dira. Hasteko, gure lehenengo elementua; **lana erraztearen** ideia hau da; eskatzen digutenaren arabera, hainbat ekintza prestatzea. Hala nola, ekitaldiak organizatu, pertsonala/langileak kontratatu, lekuak aukeratu eta publizitatea lortzeaz arduratzen gara.

Gure enpresaren diseinua (logoa) oso garrantzitsua da guretzat, logo deigarria eta identifikatzeko erraza dena ere garrantzitsua da, honekin pertsonak logoa ikustean gure enpresarekin lotzea lortzen dugu; marka estatus on eta osasuntsu bat egitea ere garrantzi handikoa da, honela, pertsonak gure enpresa kalitatezko zerbitzuagaz eta kalitatezko ekitaldiekin lotuko dute, hau lortzeko, hurrengoko logoa prestatu dugu:



Eskuragarritasun on bat daukagu, Espainia osoan ekitaldiak egiten baititugulako, horregatik, ekitaldia egiten den herriko pertsonak eta alboko herritakoak oso eskura izango dute ospatutako ekitaldira joatea eta parte hartzea, baita, garraioak erraztuko dira, urrunago bizi diren pertsonentzako.

Gure ekitaldien prezioak desberdinak dira, ez daukagu prezio finkorik ekitaldi bakoitzerako desberdinak direlako, montaketa, organizazioa...beraz ekitaldien prezioa ekitaldia sortzeko gastatutako eta ekitaldiarekin irabazi nahi den arteko oreka bat izango da irabaziak egoteko.

- Maratoian parte hartzeko: 5 €
- Lehiaketa mota desberdin bakoitzerako, izen-ematea :10 €
- Bilboko Musika Jaialdia: 8€
- Zinema kalean: 4€
- PINa Bilbon: 10€
- Dantza erakustaldia kalean: 5€
- Lehiaketa gastronomikoa: 10€

Gure irabaziak ekitaldiak antolatzeagatik hauek izango dira:

- **Maratoiarentzako:** 2000-5000€, egun kantitatearen arabera
- **Lehiaketa mota desberdinentzako:** 1000€-4000€, lehiaketa mailaren arabera.
- **Musika jaialdirako:** 10000€-15000€, kontratatzen den artistaren arabera
- **Zinema kalerako:** 500-800€
- **PINa bilbon:** 20000€-30000€, aukeratzen den pabiloi(en) arabera
- **Dantza erakustaldirako:** 2000€-3000€, dantza taldearen arabera
- **Lehiaketa gastronomikorako:** 9000€-14000€, prestatzen diren karpnen arabera, parte hartzaileen arabera, sukalde portatilen arabera.

Baina gero, ekitaldi bakoitzaren amaieran, kamiseta bana oparitzen zaie parte hartzen duten guztiei. Baita ere, berezko produktuak salduko ditugu, adibidez, *figurak, eskumuturrekoak, lepokoak...*



Baita ere, ekitaldi bakoitzean irabazitako diruaren **%30**, ONG bati zuzenduko diegu horrekin lortzen duguna da GKEei laguntzea eta pixka bat ematea behar duen jendearentzat. Honekin pentsatzen dugu gure enpresaren balioa asko handitu ahal izango dela, zeren eta, gu baino behar handiagoa duten pertsoneri laguntzea ez da ezer kostatzen.

